




Gobernuak enplegua sustatzeko 2017-2021 epean emaniko diru-laguntzak eraginkorrak eta efikazak izan al dira?



2022ko iraila



CÁMARA DE
COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA	3
II. ENPLEGURAKO AUKERAK SUSTATZEKO KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK.....	4
II.1. Enplegu Politikako Urteko Plana	4
II.2. Toki erakundeekin lankidetzan aritzeko programa	5
II.3. Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko programa	8
II.4. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak programei buruz egindako ebaluazioa.....	10
III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA	13
IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	16
V. ERANTZUKIZUNA	17
VI. FISKALIZAZIOAREN EMAITZAK.....	18
VI.1. Enplegua sustatzeko kontrataziorako laguntzen eraginkortasuna.....	18
VI.3. Enplegua sustatzeko kontrataziorako laguntzen kudeaketa eta kontrola	29
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	35
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	



I. Sarrera

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin eta bere fiskalizazio programarekin bat etorruta, enplegua sustatzeko kontrataziorako laguntzak fiskalizatu ditu, eta, zehatzago, toki erakundeek langabeak kontrata ditzaten ematen diren laguntzak eta 30 urtetik beherako langabeak praktketan kontratatzea sustatzeko laguntzak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenak fiskalizatutako laguntzen alderdi orokorrak deskribatzen ditu; hirugarrenak, gure lanaren helburuak eta irismena; laugarrenak, konklusioak eta gomendioak; bosgarrenak Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren (aurrerantzean, NL-NEZ) erantzukizuna zehazten du, eta seigarrenak, fiskalizazioaren emaitzak.

Azterketa lana 2022ko urtarriletik maiatzera bitartean egin du auditoriako bi teknikariek eta auditore batek osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, lan honen emaitzen berri eman zitzaizen Esku-bide Sozialetako Departamentuko kontseilariari eta NL-NEZeko zuzendari kudeatzaileari, alegazioak aurkez zitzaizen.

Epea amaituta, NL-NEZeko zuzendari kudeatzaileak baino ez ditu aurkeztu alegazioak. Alegazio horiek aztertu ondoren, txostenean jaso dira, eta behin betikoa bihurtu da txostena.

Eskerrak eman nahi dizkiegu NL-NEZeko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.






II. Enplegurako aukerak sustatzeko kontrataziorako laguntzak

Langabezia gizarteak duen arazo nagusietako bat da, eta herritarren kezka nagusietako bat ere bai. Arazo hori nabarmen larritu zen 2008an hasi zen krisi ekonomikoarekin, eta langabezia-tasa maila gorenera iritsi zen 2012. urtearen amaieran. Azken hamar urte hauetan, langabezia-tasak behera egin du, baina berriro egin zuen gora COVID-19ak ekarritako krisiak eraginda.

Nafarroan, langabezia-tasa ehuneko 10,45era iritsi zen 2022ko lehen hiru hilabeteetan; Estatuan, berriz, ehuneko 13,65 izan zen. Nafarroako tasa Estatuaren azpitik egon da beti, baina bilakaera antzekoa izan da, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez:



Tradizioz, administrazio publikoek baliabide publikoak erabili dituzte langabeziari aurre egiteko eta enpleguaren sorrera sustatzeko. Jarraian, arazo honi aurre egiteko erabilitako tresna garrantzitsuenetako bat deskribatzen dugu.

II.1. Enplegu Politikako Urteko Plana

Enpleguari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 11. artikulua ezartzen du urtero onetsiko dela Enplegu Politikako Urteko Plana (aurrerantzean, EPUP), zeinean autonomia erkidego bakoitzean eta, orokorrean, Estatuan enplegua aktibatzekeko urteko helburuak zehaztuko baitira.

EPUPek jarduteko sei ardatz ditu, zeinak autonomia erkidego guztietan dauden programetan eta zerbitzuetan eta erkidego bakoitzean garatutakoetan zehazten baitira.





EPUPen 3. ardatza enplegu-aukerei buruzkoa da, eta kontratazioa, enplegua sortzea edo lanpostuari eustea helburu duten jarduketak biltzen ditu, batik bat enplegua lortzeko edo lortutakoari eusteko zailtasun handienak dituzten gizataldeei zuzenduta. Zehazki, 2017-2021 aldian, Estaturako eta Nafarroarako ardatz honetan aurreikusitako programen eta zerbitzuen kopurua hau izan zen:

	Estatua			Nafarroa		
	Programa eta zerbitzu komunak	Programa eta zerbitzu propioak	Guztira	Programa eta zerbitzu komunak	Programa eta zerbitzu propioak	Guztira
2017	6	155	161	3	10	13
2018	6	162	168	3	11	14
2019	6	158	164	3	10	13
2020	6	180	186	3	10	13
2021	6	186	192	2	10	12

Nafarroari dagokionez, EPUPek beti izan ditu programa hauek:

- Toki erakundeekin lankidetzan aritzeko programa komuna, lanpostu bat lortzen eta lanbidean birziklatzen laguntzeko eta langabeei gaitasun eta trebetasun berriak eskaintzeko, aldi baterako kontratazioaren bidez, interes orokor eta sozialeko obrak edo zerbitzuak egiteko.
- Gazte Bermea gizataldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko programa propioa.

II.2. Toki erakundeekin lankidetzan aritzeko programa

Jarduketa programa honetan NL-NEZek toki erakundeei ematen dizkien dirulaguntzak sartzen dira. Laguntza hauek arautzen dituen deialdiaren xedea da langabeei lan-kontratuak egitea haien enplegagarritasuna hobetzeko, lan-merkatuan sartzeko aukera emanen dieten lanbide gaitasunak eskuratuta.

Helburu hori lortzeko, diruz laguntzen dira langabeei egindako lan-kontratuak, betiere gutxienez hiru hilabeterako badira eta lanaldi osoaren ehuneko 50eko lanaldia badute gutxienez.





Lanaldi osoko kontratu bakoitzeko diruz lagundutako zenbatekoa pertsona kontratatua zein taldetakoa den kontuan hartuta ezartzen da, hurrengo taulan erakusten dugun moduan:

Taldea	Dirulaguntzaren zenbatekoa*
A: baldintza hauetakoren bat betetzen dituzten pertsonak: errenta bermatua jasotzea; gutxienez ehuneko 33ko desgaitasuna egiaztatzea; genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeak; 18 eta 21 urte bitarteko gazteak, Babes Sistematik datozenak eta autonomia lortzeko prozesuetan sartuta daudenak; 51 urtetik gorakoak	1.100 euro hilean 12 hilabetez, gehienez
B: emakumeak	1.000 euro hilean sei hilabetez, gehienez
C: 45 urtetik gorako gizonak edo luzaroko langabeak diren 30 eta 44 urte bitarteko gizonak	800 euro hilean sei hilabetez kontratu bakoitzeko; laburragoa bada, 600 euro hilean
D: aurreko taldeetakoak ez diren gizonak	600 euro hilean sei hilabetez kontratu bakoitzeko; laburragoa bada, 400 euro hilean

* Lanaldia partziala bada, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murrizten da.

Toki erakunde bakoitzeko dirulaguntza jaso dezaketen kontratazioen gehieneko kopuru bat dago, biztanleen kopuruaren arabera, hurrengo taulan ikus daitekeenez:

Biztanle kopurua	Dirulaguntza jaso dezaketen kontratazioen gehieneko kopurua*
100 arte	2
101 - 500	4
501 - 1.000	6
1.001 - 5.000	8
5.001 - 10.000	12
10.001etik 40.000ra bitarte	16
40.000 baino gehiago	20

* Muga hauek ez dira aplikatzen A eta B taldeetako pertsonak kontratatzen badira.

Pertsonak kontratatzeke ezarritako prozedura toki erakundeek eskabidea enplegu agentzian aurkezten dutenean hasten da; kontratazioarako aurreikusitako data baino 15 egun lehenago aurkeztu behar da, gutxienez. Eskatutako profila kontuan hartuta, hautagai diren langabeen lehen hautaketa bat egiten du agentziak eta zerrenda bat bidaltzen dio toki erakundeari, hautagai bakoitza zein taldetakoa den zehaztuta, erakundeak erabaki dezan nor kontratatu.

Kontratazioa egin ondoren, toki erakundeak dirulaguntza eskatuko dio NL-NEZeko Enplegua Sustatzeko eta Enpresentzako Zerbitzuetarako Zerbitzuari, izapidetzeaz arduratzen den antolaketa unitatea baita.





Kontratatuek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Langabezian egotea eta NL-NEZen enplegu agentzietan inskribatuta egotea.
- Errenta bermatua jasotzen duten pertsonak kontratatuz gero, pertsona horiek prestazio horren onuradun izan behar dute dagokion enplegu agentziak eskaintza izapidetzen duen datan.
- Dirulaguntza eskatu duen toki erakundeetan ez egotea kontratatuta hiru hilabeterako edo gehiagorako, ekitaldi berean edo aurreko ekitaldian, A taldeko pertsonen kasuan izan ezik. Edonola ere, kontratazioa era askotako obrak egiteko edo zerbitzuak emateko izan behar da.

Halaber, deialdiak ezartzen du NL-NEZek egiaztatu egingen duela diruz lagundu diren kontratazioak egin zaizkien pertsonak Gizarte Segurantzaren alta emanda egon direla diruz lagundutako epean.

Dirulaguntza honi lotutako aurrekontuko gastua 21,33 milioi eurokoa izan zen 2017-2021 aldian. Hau da zehaztapena:

	2017	2018	2019	2020	2021	Aldea (%) 2021/2017	Aldea (%) 2021/2020
Gastua	3.935.848	4.127.503	3.904.677	4.585.781	4.775.719	21	4
Erakunde onuradunen kop.	212	208	198	204	202	-5	-1
Pertsona kontratatuen kop.	962	838	840	861	848	-12	-2
A taldea (%)	28	33	28	37	50	77	33
B taldea (%)	25	24	27	26	20	-20	-21
C taldea (%)	30	24	25	17	9	-70	-48
D taldea (%)	17	19	20	20	21	28	7

2021ean, gastua 4,78 milioi eurokoa izan zen, hau da 2017an edo 2020an baino gehiago gastatu zen, ehuneko 21 eta ehuneko lau gehiago, hurrenez hurren. Urtero, dirulaguntzaren onuradun izan diren erakundeen kopurua 200 ingurukoa izan da aztertutako ekitaldi guztietan.

2021ean 848 pertsona kontratatu ziren, hau da, 2017an baino ehuneko 12 gutxiago, nahiz eta gastua ehuneko 21 handiagoa izan. Inguruabar horren arrazoia da talde bakoitzeko pertsona kontratatuen kopurua ezberdina izan zela; 2021ean A taldekoak lehenetsi ziren eta talde horrek diru gehiago jasotzen zuen.





II.3. Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko programa

Jarduketa programa honetan NL-NEZek Nafarroan dauden lantokiei ematen dizkien dirulaguntzak sartzen dira. Laguntza hauek arautzen dituen deialdiaren xedea da gazte langabeen praktikaldiko kontratazioa finantzatzea, halako kontratuak sustatzeko, enplegua sortzeko eta talde horren laneratzea ahalbidetzeko.

Dirulaguntza hauen hartzaileak izan daitezke enpresak, langile autonomoak eta irabazi-asmorik gabeko entitateak (aurrerantzean, lantoki horiei guztiei enpresa esanen diegu).

Helburu hori lortzeko, diruz laguntzen dira Nafarroan dauden enpresetan egiten diren praktikaldiko kontratuak. Kontratu horiek sei hilabeterako izan behar dute, gutxienez, eta kontratatuaren prestakuntza akademikoarekin eta/edo profesionalarekin bat datozen lanpostuetarako izan behar dute, lanaldi osoan edo partzialean (inoiz ez ehuneko 50etik beherakoak). Halaber, urteko gutxieneko lansari gordina (aparteko pagak barne) kontratuan agertu behar da, eta ez da izanen kopuru hauetatik beherakoa:

Kontratatuaren titulazioa	Urteko gutxieneko lansari gordina*
Unibertsitateko titulazioa	17.000 euro
Goi mailako heziketa zikloak (LH II)	14.500 euro
Erdi mailako heziketa zikloak (LH I) eta profesionaltasun ziurtagiriak	12.000 euro

* Diru kopuru horiek lanaldi osoetarako dira. Lanaldia txikiagoa izanez gero, proportzionalki murrizten dira.

Kontratatuek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Langabezian egotea eta NL-NEZen enplegu agentzian inskribatuta egotea.
- Gazteen Bermearen Erregistro Nazionalean inskribaturik egotea (erregistro hori fitxategi bat da non gazteak eskariaren zerrenda bakarria osatzen baitute, eskaintza jakin batzuk jasotzeko. Beren borondatez inskribatzen dira).
- 30 urtetik beherakoak izatea, salbu eta aplikatu beharreko araudiak behe-ragoko adin muga bat ezartzen badu.
- Aurreko taulan zehaztutako titulazioetako bat edo haien baliokideren bat izatea.

Horrez gainera, dirulaguntzen gehieneko zenbateko hauek ezarri dira lanaldi osoan kontratatuko pertsonaren titulazioaren arabera (urteko gutxieneko lansari gordinaren ehuneko 30 da):





Kontratuaren titulazioa	Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa*
Unibertsitateko titulazioa	5.100 euro
Goi mailako heziketa zikloak (LH II)	4.350 euro
Erdi mailako heziketa zikloak (LH I) eta profesionaltasun ziurtagiriak	3.600 euro

* Lanaldia partziala bada, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murrizten da.

Adierazitako zenbatekoak ehuneko 20 gehituko dira emakumeak edo desgaitasuna duten pertsonak kontratatzen badira. Desgaitasuna duen pertsonatzat hartzen da ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortua duena.

Deialdiak ezartzen du NL-NEZek egiaztatu egingen duela kontratatua Gizarte Segurantzari alta emanda egon dela ezarritako gutxienerako epean.

Deialdian ezarritako dirulaguntzak “de minimis” laguntzak dira, eta, beraz, enpresa bakar bati ondoz ondoko hiru zerga ekitalditan emandako laguntza guttien batura ezin da 200.000 eurotik gorakoa izan. Hori dela eta, laguntza hauek eskatzen dituzten enpresek kasuan kasuko zergaldian eta aurreko bi zergaldietan hartutako bestelako “de minimis” laguntzak aitortu behar dituzte.

Dirulaguntza lortzeko ezarritako prozedura eskabidea aurkezten denean hasten da. Horretarako, hilabeteko epea dago, kontratua hasi eta biharamunetik hasita. Eskabide hauek NL-NEZeko Enplegua Sustatzeko eta Enpresentzako Zerbitzuetarako Zerbitzuak izapidetzen ditu, banakako ebaluazioaren araubidearen bidez.

Dirulaguntza honi lotutako aurrekontuko gastua 8,42 milioi eurokoa izan zen 2017-2021 aldian. Hau da zehaztapena:

	2017	2018	2019	2020	2021	Aldea (%) 2021/2017	Aldea (%) 2021/2020
Gastua	726.254	1.501.836	1.918.517	1.475.400	2.796.579	285	90
Enpresa onuradunen kop.	134	227	287	227	444	231	96
Kontratatuaren kop.	166	335	419	318	669	303	110

2021ean, gastua 2,80 milioi eurokoa izan zen, hau da 2017an edo 2020an baino gehiago gastatu zen, ehuneko 285 eta ehuneko 90 gehiago, hurrenez hurren. 2021ean izandako onuradunen kopurua eta kontratatuaren kopurua 444 eta 669ra iritsi zen, hurrenez hurren; hau da, aztertutako gainerako urteetan baino nabarmen gehiago kontratatu ziren.





II.4. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak programei buruz egindako ebaluazioa

2015era arte, NL-NEZeko zerbitzu bakoitzak egiten zuen finantzatzen zituen programen jarraipena. 2019an, legegintzaldia aldatu eta gero, Programen Jarraipenerako Atala sortu zen Laguntza eta Kudeaketa Administratiboaren Zerbitzuaren barruan, ebaluazio hori egin zezan.

Aipatutako atalak gorago adierazitako laguntzak ebaluatu ditu, helburu hau-ekin:

- Identifikatzea, batetik, esku-hartzea ea zer neurritan den egokia eta koherentea konpondu nahi diren arazoak kontuan hartuta, eta, bestetik, nola eragiten dien kudeaketak lortutako emaitzei.
- Ebaluatzea zer neurritan lor daitezkeen, lortzen ari diren edo lortu diren ezarritako helburu berehalakoenak, eta aztertzea zer kostu duen lortzeak, denbora, giza baliabideak, baliabide materialak eta diruzkoak kontuan hartuta.
- Ebaluatzea zer eragin duen parte hartzen duen taldearengan, ikuspegi bikoitz batetik: lan-merkatuan sartzea eta enplegarritasuna hobetzea.
- Ezagutzea zer eragin duen gizonen eta emakumeen laneratzean.
- Aztertzea onuradunen gogobetetasun-maila jasotako dirulaguntzari dagokionez.
- Aztertzea onuradunen eta kontratatuen gogobetetasun-maila NL-NEZek garatutako jarduerari dagokionez.
- Konklusioak eta gomendioak prestatzea, programa honen diseinua eta kudeaketa hobetzeko.

Ebaluazioak zenbait adierazle ditu xede edo helburu baten betetze-maila neurtzeko.

Jarraian, laguntza bakoitzaren ebaluazioaren xehetasunak aurkezten ditugu.

II.4.1. Toki erakundeekin lankidetzan aritzeko programaren ebaluazioa

NL-NEZek 2022an egin zuen programa honen 2020ko deialdiaren ebaluazioa; zehazki, diruz lagundutako kontratua ebaluazioa egin baino bi urte lehenago amaitu zitzairen 658 kontrataturi buruzko ebaluazioa egin zuen.





Adierazle eta xede hauek 2020an zenbateraino bete ziren aztertu zuen ebaluazioak:

Adierazlea	Xedea	Emitza	
		6 hilabete	12 hilabete
Laneratzea (%), diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera eta 12 hilabetera	60	39,1	47,4
Emakumeen B taldearen laneratzea (%), diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera eta 12 hilabetera	29	27,2	33
Talde guztietako emakumeen laneratzea (%)	37	31,9	37,5
Errenta bermatua jasotzen duten pertsonen laneratzea (%), diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera eta 12 hilabetera	21	12,8	13,8
Desgaitasunen bat duten pertsonen laneratzea (%), diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera eta 12 hilabetera	5	3,9	3,5
45 urtetik gorako gizonen laneratzea (%), diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera eta 12 hilabetera	18	26,5	22,4
Luzaroko langabeak diren 30 eta 44 urte bitarteko gizonen laneratzea (%), diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera eta 12 hilabetera	2	2	1
	Xedea	Emitza	
Entitate onuradunen gogobetetasun-maila dirulaguntzari dagokionez (1-10)	8	8,4	
Kontratuak eskatzen ziren gaitasun teknikoak zituela uste zuten entitateak (%)	80	91,2	
Kontratuaren enplegarritasuna hobetu dela uste zuten entitateak (%)	88	92,9	
Beren enplegarritasuna hobetu zela uste zuten kontratuak (%)	60	48,9	
Kontratazioak beren garapen pertsonala/profesionala sustatu zuela uste zuten kontratuak (%)	80	85,6	
Enpresen gogobetetasun-maila NL-NEZek garatutako jarduerari dagokionez (1-10)	8	8,8	
Kontratatuaren gogobetetasun-maila NL-NEZek garatutako jarduerari dagokionez (1-10)	7	7,2	

Horrez gainera, NL-NEZek gogobetetasunari buruzko inkestak egin zizkien dirulaguntzaren onuradun izan ziren toki erakundeei eta kontratatuei, 2020ko eta 2021eko deialdiei dagokienez. Hauek dira datuak:

	2020	2021
Inkesta egin zitzaizen toki erakundeen kop.	114	127
Inkesta egin zitzaizen toki erakundeak / guztira onuradun izan ziren toki erakundeak (%)	56	63
Inkesta egin zitzaizen kontratatuen kop.	92	160
Inkesta egin zitzaizen kontratuak / guztira kontratatu zirenak (%)	11	19





II.4.2. Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko programaren ebaluazioa

NL-NEZek 2020an egin zuen programa honen 2018ko deialdiaren ebaluazioa; zehazki, diruz lagundutako 176 pertsonari buruzko ebaluazioa egin zuen. Pertsona horien praktikaldiko kontratua ebaluazioa egin baino bi urte lehenago hasi zen.

Adierazle eta xede hauek 2020an zenbateraino bete ziren aztertu zuen ebaluazioak:

Adierazlea	Xedea	Eraitza
Laneratzeak (%), diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera	90,5	96,6
Emakumeen laneratzea (%), diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera	32,1	29,4
Enpresa berean izandako laneratzeak (%), diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera	75,3	85,3
Dirulaguntzaren onuradun izandako enpresen gogobetetasun-maila (1-10)	8,3	8,4
Kontratuak eskatzen ziren gaitasun teknikoak zituela uste zuten enpresak (%)	87,7	91,9
Kontratuak eskatzen ziren zeharkako gaitasunak zituela uste zuten enpresak (%)	82,8	91,7
Kontratatuak enplegarritasuna hobetu zela uste zuten enpresak (%)	98,5	96,6
Beren enplegarritasuna hobetu zela uste zuten kontratuak (%)	68	87,4
Kontratazioak beren garapen pertsonala/profesionala sustatu zuela uste zuten kontratuak (%)	93,5	86,8
Enpresen gogobetetasun-maila NL-NEZek garatutako jarduerari dagokionez (1-10)	7,8	7,7
Kontratatuak gogobetetasun-maila NL-NEZek garatutako jarduerari dagokionez (1-10)	6,8	6,8

Horrez gainera, NL-NEZek gogobetetasunari buruzko inkestak egin zituzten dirulaguntzaren onuradun izan ziren enpresei eta kontratuei, 2017-2021 aldiko deialdiei dagokienez. Hauek dira datuak:

	2017	2018	2019	2020	2021
Inkesta egin zitzaizkien enpresen kop.	44	67	88	121	150
Inkesta egin zitzaizkien enpresak / enpresa onuradun guztiak (%)	33	30	31	53	34
Inkesta egin zitzaizkien pertsonen kop.	*	79	76	80	147
Inkesta egin zitzaizkien pertsonak / guztira kontratatu zirenak (%)	*	24	18	25	22

* 2017an, NL-NEZek enpresei baino ez zuten egin inkesta; pertsonari ez zuten egin.





III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa

Lan honen helburua da toki erakundeei langabeak kontratatzeke emandako laguntzen eta enpresei gazteak praktikaldian kontratatzeke emandako laguntzen kudeaketa ebaluatzea.

Horretarako, honako helburu hauek zehaztu ditugu, galderetan jasota:

1. helburua: Eraginkorrak al dira Nafarroako toki erakundeei langabeak kontratatzeke emandako dirulaguntzak eta Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntza?

2. helburua: Efizienteak al dira toki erakundeei langabeak kontratatzeke emandako dirulaguntzak eta Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntza?

3. helburua: Egokiak izan al dira toki erakundeei langabeak kontratatzeke emandako dirulaguntzen eta Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntzaren deialdien kudeaketa eta kontrola?

Helburu horiek hainbat azpichelburutan banakatu dira, eta horietako bakoitzetarako ikuskapen-irizpide egokienak definitu ditugu, horiek betetzeari buruzko konklusioak ateratzeko. Hurrengo orrialdeetan aurkezten dira haietako bakoitzean auditatu diren azpichelburuak eta irizpideak:





1. helburua. Eraginkorrak al dira Nafarroako toki erakundeei langabeak kontratatzeke emandako dirulaguntzak eta Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntza?

Azpihelburuak	Irizpideak
1.1. Hobetu da dirulaguntzaren xede izan diren kontratatuen enplegarritasuna?	<p>Toki erakunde kontratatzaileek eta pertsona kontratatuek enplegarritasunaren hobekuntzari buruz egindako balorazioa.</p> <p>Toki erakundeek kontratatutako pertsonen beren garapen pertsona eta profesionalaren hobekuntzari buruz egin duten balorazioa.</p> <p>Enpresa kontratatzaileek eta pertsona kontratatuek enplegarritasunaren hobekuntzari buruz egindako balorazioa.</p> <p>Enpresek kontratatutako pertsonen beren garapen pertsona eta profesionalaren hobekuntzari buruz egin duten balorazioa.</p>
1.2. Sustatu da dirulaguntzaren xede izan diren pertsona kontratatuen laneraztea?	<p>Toki erakundeek guztira kontratatu dituzten pertsonetatik laneratu direnak (%), diruz lagundutako aldia amaitu eta sei, 12, 18 eta 24 hilabete pasatu ondoren.</p> <p>Laneratzearen (%) eta antzeko ezaugarriak dituzten eta toki erakundeek kontratatu ez dituzten pertsonen osatutako kontrol-taldearen arteko alderaketa, diruz lagundutako aldia amaitu eta sei, 12, 18 eta 24 hilabetera.</p> <p>Toki erakundeen balorazioa: sustatu da laneraztea?</p> <p>Enpresek guztira kontratatu dituzten pertsonetatik laneratu direnak (%), diruz lagundutako aldia amaitu eta sei, 12, 18 eta 24 hilabete pasatu ondoren.</p> <p>Laneratzearen (%) eta antzeko ezaugarriak dituzten eta enpresek kontratatu ez dituzten pertsonen osatutako kontrol-taldearen arteko alderaketa, diruz lagundutako aldia amaitu eta sei, 12, 18 eta 24 hilabetera.</p> <p>Enpresa kontratatzaileen balorazioa: sustatu da laneraztea?.</p>

2. helburua. Efizienteak al dira toki erakundeei langabeak kontratatzeke emandako dirulaguntzak eta Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntza?

Azpihelburuak	Irizpideak
2.1. Kontratazio horietarako erabili den gastu publikoak itzulera sozialik ekarri du?	<p>Toki erakundeetan diruz lagundutako kontratazioaren arloko inbertsioaren itzulera soziala.</p> <p>Enpresetan diruz lagundutako kontratazioaren arloko inbertsioaren itzulera soziala.</p>
2.2. Pertsona berberak kontratatuko ziratekeen dirulaguntzarik izan ez balitz?	<p>Toki erakunde kontratatzaileen balorazioa: dirulaguntzarik jaso ez balute pertsonaren bat kontratatuko zuketena?</p> <p>Enpresa kontratatzaileen balorazioa: dirulaguntzarik jaso ez balute pertsonaren bat kontratatuko zuketena?</p>

3. helburua. Egokiak izan al dira toki erakundeei langabeak kontratatzeke emandako dirulaguntzen eta Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntzaren deialdien kudeaketa eta kontrola?





Azpihelburuak	Irizpideak
3.1. Dirulaguntzak zegozkien deialdietan eza- rritakoaren arabera eman dira?	Toki erakundeei emandako dirulaguntzak.
	Toki erakundeei ukatutako eskabideak edo onartu ez zirenak.
3.2. Edonoren eskura egon da kontratazioak fi- nantzatzeko dirulaguntza eskatzeko proze- dura?	Enpresei emandako dirulaguntzak.
	Enpresei ukatutako eskabideak edo onartu ez zirenak.
	Toki erakundeen balorazioa dirulaguntza eskuratzeko prozedura- ren erraztasunaren inguruan.
	Toki erakundeen balorazioa dirulaguntza eskuratzeko online zerbi- tzuen inguruan.
	Toki erakundeen balorazioa dirulaguntza hau izapidetzen duten NL-NEZeko langileen laguntzaren inguruan.
	Enpresen balorazioa dirulaguntza eskuratzeko prozeduraren erraz- tasunaren inguruan.
3.3. Deialdietan ezarritakoaren arabera egin da dirulaguntzaren jarraipena eta kontrola?	Enpresen balorazioa dirulaguntza eskuratzeko online zerbitzuen in- guruan.
	Enpresen balorazioa dirulaguntza hau izapidetzen duten NL-NE- Zeko langileen laguntzaren inguruan.
	Toki erakundeen itzulketak.
	Enpresen itzulketak.

Lanaren edukian 2017-2021 aldiari aipatutako taldeak kontratatzeke erabili diren funts publikoak sartu dira, eta alderdi hauek aztertu dira:

- Aztertutako dirulaguntzekin lotutako aurrekontuko partidak 2017-2021 aldirako.
- Fiskalizatu diren dirulaguntzen deialdiei buruzko datu orokorrak 2017-2021 aldirako.
- 2017-2021 aldiari toki erakundeei eta enpresei kontratazioetarako eman zaizkien dirulaguntzak.
- NL-NEZek egindako ebaluazioa, praktikaldiko kontratazioa sustatzeko dirulaguntzen 2018ko deialdiari buruz eta toki erakundeetan kontratazioak egiteko laguntzen 2020ko deialdiari buruzkoa.
- Enpresei eta kontratatuei 2017-2021 aldiari egindako gogobetetasunari buruzko inkestak eta toki erakundeei eta kontratatuei 2020an eta 2021ean egindakoak.
- Gizarte Segurantzari alta emanda egon direnei edo egon ez direnei buruzko datuak, diruz lagundutako kontratatuen lagin bat eta antzeko ezaugarriak dituen kontrol-talde bat¹ aztertuta, fiskalizatutako laguntza bakoitzaren arabera.
- Aipatutako taldeak kontratatzeke eman diren dirulaguntzekin lotuta dagoen araudia.
- 2018-2021 aldirako enplegu politikako urteko planak

¹ Politika publikoaren ebaluazioaren eremuan, kontrol-taldea da ebaluatu nahi den programan edo politikan parte hartu duten biztanleen antzeko ezaugarriak dituzten baina programan edo politikan parte hartu ez duten biztanleek osatutakoa.





IV. Konklusioak eta gomendioak

Langabezia gizartearen arazo nagusienetako bat izan da eta da, eta larriagotu egin da izan den krisi bakoitzarekin. Tradizioz, administrazio publikoek baliabide publikoak erabili dituzte arazo horri aurre egiteko, dirulaguntzen bidez. Nafarroan, 2022ko lehen hiruhilekoan, langabezia-tasa ehuneko 10,45era iritsi zen, eta estatuko tasaren balioaren (ehuneko 13,65) azpitik kokatu zen.

Toki erakundeei kontrataziorako emandako laguntzak eta, praktikaldiko kontratuak sustatzeko, enpresei emandakoak fiskalizatu ditugu. 2017-2021 aldian, 21,33 eta 8,42 milioi euro gastatu ziren, hurrenez hurren, 4.349 eta 1.319 pertsona kontratatzeko.

Ganbera honek uste du toki erakundeei emandako laguntzek, ikuspegi ekonomiko zorrotzetik itzulera sozial² positiborik ez badakarte ere, pertsonen enplegarritasuna hobetzen laguntzen dutela eta haien laneratzea sustatzen dutela, kontratatu ez ziren pertsonekin alderatzen baditugu.

Enpresei emandako laguntzei dagokienez, itzulera sozial positiboa badakarte ere eta enplegarritasunari buruzko balorazioa positiboa bada ere, dirulaguntzaren onuradun gehienek uste dute berdin-berdin kontratuko lituzketela pertsonak praktikaldian. Ezin dugu zehaztu diruz lagundutako kontratatuek laneratzea sustatzen duten ala ez.

NL-NEZek egiten duen laguntzen kudeaketa eta kontrolari dagokionez, Ganberak uste du, orokorrean, egokia eta zentzuzkoa izan direla. Horrez gainera, bai toki erakundek bai enpresek adierazi dute erraza dela aztertutako dirulaguntzak eskatzea eta justifikatzea.

Atera ditugun ondorioak kontuan hartuz, bada, *gomendio* hauek egiten ditugu:

- *Enplegu programa garrantzitsuenen inpaktua ebaluatzea, eta, horren barruan, lortutako emaitzak kontrol-talde batekin alderatzea.*
- *Ganbera honek laguntza emateko espediente batzuetan ikusi dituen akatsak aztertzea, eta, hala badagokio, itzulketak izapidetzea.*
- *Gazteen praktikaldiko kontratazioa sustatzeko deialdian pertsona bera urte berean behin baino gehiagotan kontratatzeko ezintasuna ezartzea, dirulaguntzaren banaketa bidezkoagoa izan dadin.*

² Itzulera sozialak aukera ematen du gastu publikoan inbertitutako euro bakoitzak gizarteari dakarkion balio soziala eta sozioekonomikoa identifikatzeko eta kuantifikatzeko, dirutan. Lortutako balioen bidez, aztertutako dirulaguntzen eragina, ondorioa edo inpaktua ulertzen ahal da.





V. Erantzukizuna

Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna

NL-NEZek enplegua sustatzeko kontrataziorako laguntzak kudeatzeko arduradua du.

Erakunde horrek bermatu behar du egindako kudeaketa-jarduerak eta -eragiketarak aplikatzekoak diren arauekin bat datozeela, eta beharrezko mekanismoak ezarri behar ditu proposatutako helburuak eraginkorrak izan daitezzen eta helburu horiek lortzeko baliabide publikoak efizientziaz eta ekonomiaz erabil daitezzen, horretarako beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezarriz.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da gure fiskalizazioan oinarritutako ondorioak adieraztea, enplegua sustatzeko kontrataziorako laguntzen kudeaketari dagokionez.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta batez ere fiskalizazio operatiboei buruzko ISSAI-ES 300 araua aplikatu dugu, bai eta fiskalizazio operatiboen garapenari buruzko ISSAI-ES 3000 eta 3100 arauetan jasotako jarraibideak ere. Printzipio eta jarraibide horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea baliabide publikoen kudeaketa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izateaz. Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, lortutako konklusioak oinarrituko dituzten auditoretza-ebidentziak lortzeko.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarri egokia jasotzen du, ateratako konklusioei funtsa emateko.





VI. Fiskalizazioaren emaitzak

VI.1. Enplegua sustatzeko kontratazioarako laguntzen eraginkortasuna

1. helburua. Eraginkorrak al dira Nafarroako toki erakundeei langabeak kontratatzeke emandako dirulaguntzak eta Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntza?


Jarraian, aztertutako laguntza bakoitzean azpigelburu hau ebaluatzeko eza-eritako irizpideei buruz lortutako emaitzak erakusten ditugu.

VI.1.1. Diruz lagundutako kontratatuen enplegarritasunaren hobekuntza:

- Toki erakundeetan kontratazioa sustatzeko laguntzak:

Toki erakundeen eta diruz lagundutako kontratatuen balorazioa enplegarritasunaren hobekuntzari buruz

Toki erakundeei eta kontratatuei 2020ko eta 2021eko deialdien inguruan egindako inkestetan, NL-NEZek enplegarritasunaren hobekuntzari buruzko balorazioa eskatu zien, eta hauek izan ziren emaitzak:




Ikus daitekeenez, toki erakundeek kontratatuen enplegarritasunaren hobekuntzari buruz egindako balorazio positiboa kontratatuena baino nabarmen gorago kokatu zen ebaluatu ziren bi urteetan. Bi kasuetan, datuak hobekuntza izan ziren 2021ean 2020an baino, eta ehuneko 98ra iritsi zen toki erakundeen kasuan, eta ehuneko 56ra, kontratatuen kasuan. Deigarria da datu hau: pertsonen balorazio negatiboa nahiko altua izan zen bi ekitaldietan.





Diruz lagundutako kontratatuen balorazioa beren garapen pertsonalaren eta profesionalaren hobekuntzari buruz

2020ko eta 2021eko deialdiei buruzko inkestetan, NL-NEZek beren garapen pertsonalaren eta profesionalaren hobekuntzari buruzko balorazioaz galdetu ziren kontratatuei, eta hauek izan ziren emaitzak:



Diruz lagundutako kontratatu gehienek uste zuten hobetu egin zela beren garapen pertsonala eta profesionala, eta antzeko ehunekoak atera ziren aztertutako bi urteetan: ehuneko 85 ingurukoa.


Labur esanda, toki erakundeei kontrataziorako ematen zaien laguntza honek enplegarritasuna hobetzen lagundu du –baina hobekuntza hori ikusten duten pertsonen ehunekoak erakundeena baino nabarmen txikiagoa da–, baita kontratatuen garapen pertsonala eta profesionala hobetzen ere.

- Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntzak:

Enpresen eta kontratatuen balorazioa enplegarritasunaren hobekuntzari buruz

Enpresei eta kontratatuei 2017-2021 aldiko deialdien inguruan egindako inkestetan, NL-NEZek enplegarritasunaren hobekuntzari buruzko balorazioa eskatu ziren, eta grafikoan jaso diren emaitzak atera ziren:





Ikus daitekeenez, enpresek kontratatuen enplegarritasunaren hobekuntzari buruz egindako balorazio positiboa (ehuneko 97, batez beste) kontratatuena (ehuneko 87, batez beste³) baino gorago kokatu zen ebaluatu ziren urteetan, baina toki erakundeei kontrataziorako emandako laguntzetan izandakoa baino txikiagoa izan zen aldea.


2021ean, ehuneko 98,63an eta ehuneko 84,93an kokatu ziren balio horiek enpresen kasuan eta kontratatuen kasuan, hurrenez hurren. Enpresei dagokionez, urte horretako balioa altuena izan zen aldi horretan; kontratatuen kasuan, berriz, adierazitako zifra 2019an baino ez zen gainditu.

Diruz lagundutako kontratatuen balorazioa beren garapen pertsonalaren eta profesionalaren hobekuntzari buruz

2018-2021 aldiko deialdien inguruan egindako inkestetan, NL-NEZek beren garapen pertsonalaren eta profesionalaren hobekuntzari buruzko balorazioaz galdetu ziren kontratatuei, eta grafikoan jaso diren emaitzak atera ziren:

³ 2017an ez zitzaizen galdetu gai honi buruz kontratatuei; beraz, batezbestekoa 2018-2021 aldikoa da.





Grafikoan ikus daitekeenez, 2021ean, inkestatutako kontratatuen ehuneko 93,84k uste zuten beren garapen pertsonala eta profesionala hobetu egin zela praktikaldiko kontratuari esker.

Labur esanda, enpresentzako laguntza honek kontratatuen enplegarritasuna eta garapen pertsonala eta profesionala hobetzen lagundu du.

VI.1.2. Diruz lagundutako kontratatuen laneratzea


Toki erakundeek eta enpresek kontratatutako taldeen laneratzea sustatu den ala ez aztertu dugu, gorago adierazitako irizpideak erabilia. Ondoren zehazten dugu atera den ebaluazioa.

- Toki erakundeetan kontratazioa sustatzeko laguntzak:

Kontratu diren pertsonetatik laneratu zirenen ehunekoa, diruz lagundutako aldia amaitu eta sei, 12, 18 eta 24 hilabete pasatu ondoren

Irizpide hau ebaluatzeko, kontratua 2019ko uztailetik 2020ko ekainera bitartean amaitu zitzairen pertsonak aukeratu genituen; 800 pertsona guztira. Informazioa eskatu genion Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, jakiteko ea pertsona horiek alta-egoeran egon ziren, edozein araubidetan, sei, 12, 18 eta 24 hilabetera. Hau izan zen emaitza.






Laneratzearen ehunekoak gora egiten du denborak aurrera egin ahala: diruz lagundutako epea amaitu eta sei hilabetera ehuneko 28 da, eta 24 hilabetera, berriz, ehuneko 52.

Laneratzearen ehunekoaren alderaketa: diruz lagundutako kontratatuak eta diruz lagundu ez ziren pertsonak, sei, 12, 18 eta 24 hilabetera

Laguntza honen inpaktua ebaluatzeko, diruz lagundutako 800 kontratatuen laneratzearen ehunekoa 352 pertsonak osatutako kontrol-talde batekin alderatu genuen. Pertsona horiek kontrataziorako baldintzak betetzen zituzten eta hautagai izan ziren, baina ez zituzten kontratatu dirulaguntza honen kargura. Aurreko kasuan bezala, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak haien alta-egoerari buruzko datuak eman zizkigun adierazitako datei dagokienez. Hurrengo grafikoan erakusten da lortutako emaitza.






Ikus daitekeenez, bi kasuetan laneratzearen ehunekoak gora egiten du epea luzatu ahala. Antzeko zifretan hasten dira, diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera, ehuneko 28koa eta ehuneko 23koa baitzen diruz lagundutako pertsonen eta kontrol-taldeko pertsonen laneratzea, hurrenez hurren. Baina, denborak aurrera egin ahala, diruz lagundutako pertsonen laneratzearen ehunekoak kontrol-taldearenak baino gehiago egiten du gora, eta 24 hilabetera ehuneko 52 da; kontrol-taldearena, berriz, ehuneko 38.

Toki erakundeen balorazioa laneratzeari buruz

Toki erakundeei egindako inkestan, NL-NEZek galdetu zien ea diruz lagundutako kontratuak laneratzea sustatzen zuen ala ez, eta hau izan zen emaitza:



Ikus daitekeenez, ia erakunde guztiek uste zuten bi urte horietan kontratazioak kontratatuen laneratzea sustatu zuela, eta batez besteko balioa ehuneko 94 izan zen.



Labur esanda, Ganberak uste du toki erakundeentzako laguntzak kontratatuen laneratzea sustatzen lagundu duela.

- Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntzak:

Diruz lagundutako kontratatuetatik laneratu direnen ehunekoa, diruz lagundutako aldia amaitu eta sei, 12, 18 eta 24 hilabete pasatu ondoren

Irizpide hau ebaluatzeko, kontratua 2019an zehar amaitu zitzaizen 362 pertsona aukeratu genituen. Informazioa eskatu genion Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, jakiteko ea pertsona horiek alta-egoeran egon ziren, edozein araubidetan, sei, 12, 18 eta 24 hilabetera. Hau izan zen emaitza:






Praktikaldia amaitu eta 24 hilabetera, laneratzea ehuneko 89koa zen; sei hilabetera zegoena baino ehuneko zazpi puntu handiagoa izan zen.

Laneratzearen ehunekoaren alderaketa: diruz lagundutako kontratatuak eta diruz lagundu ez ziren pertsonak, sei, 12, 18 eta 24 hilabetera

Diruz lagundutako 362 kontratatuen laneratzearen ehunekoa 47 pertsonak osatutako kontrol-talde batekin alderatu dugu. Pertsona horientzat dirulaguntza eskatu zen –baldintzak betetzen zituzten–, baina ez zuten jaso. Aurreko kasuan bezala, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak haien alta-egoerari buruzko datuak eman zizkigun adierazitako datei dagokienez. Lortutako emaitza hurrengo grafikoan agertzen da:



Diruz lagundutako kontratatuen eta kontrol-taldearen laneratzearen ehunekoek goranzko antzeko bilakaera dute aztertutako aldian. Kontratua hasi eta 24






hilabetera, diruz lagundutako kontratatuen laneratzearen ehunekoa kontrol-taldearena baino ehuneko lau puntu handiagoa zen.

Enpresen balorazioa laneratzeari buruz

Enpresei egindako inkestan, NL-NEZek galdetu zien ea diruz lagundutako kontratuak laneratzea sustatzen zuen ala ez, eta hau izan zen emaitza 2017-2021 aldirako:



Aldi horretan inkestatutako enpresa ia guztiek (ehuneko 97) uste zuten diru-laguntza hauek kontratatuen laneratzea sustatzen zutela.

Labur esanda, diruz lagundutako kontratatuen laneratzearen ehunekoa kontrol-taldearena baino handiagoa izan zen, baina aldeak ez dira esanguratsuak. Gainera, kontrol-taldean pertsona gutxi zeuden. Hortaz, ezin dugu zehaztu laguntza honek diruz lagundutako kontratatuen laneratzea sustatzen duen ala ez.





VI.2. Enplegua sustatzeko kontrataziorako laguntzen efizientzia

2. helburua. Efizienteak al dira toki erakundeei langabeak kontratatzeke emandako dirulaguntzak eta Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntza?

VI.2.1. Kontrataziorako erabili den gastu publikoren itzulera soziala

Itzulera sozialak aukera ematen du gastu publikoan inbertitutako euro bakoitzak gizarteari dakarkion balio soziala eta sozioekonomikoa identifikatzeko eta kuantifikatzeko, dirutan. Lortutako balioen bidez, aztertutako dirulaguntzen eragina, ondorioa edo inpaktua ulertzen ahal da.

Bere ebaluazioan, NL-NEZek itzulera soziala kalkulatu zuen, adierazle hori lortzeko erabili ohi den formula honen bidez:

$$\frac{\text{Beneficios sociales mensuales (salarios mínimos interprofesionales personas insertadas + prestaciones sociales que se dejan de abonar + seguros sociales de contratos)}}{\text{Gasto mensual subvención}}$$

Jarraian, laguntza fiskalizatu bakoitzerako lortutako emaitzak erakusten ditugu:

- Toki erakundeetan kontratazioa sustatzeko laguntzak:

NL-NEZek 2020ko deialdia ebaluatu zuen, eta diruz lagundutako aldia amaitu eta sei eta 12 hilabetera itzulera soziala izan zuten 658 kontratazio aztertu zituen. Ondoren adierazten diren emaitzak atera ziren.

Itzulera soziala diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera

	Dirulaguntza- ren hileko gas- tua	Lanbide arteko gutxieneko sol- data	Langabeziako prestazioa	Langabezi- ako sorospena	Errenta bermatua	Gizarte asegu- ruak
Pertsonen kop.*	658	257	73	27	34	257
Unitateko batez bes- teko zenbatekoa	1.198	1.125	1.042	430	905	70
Guztira	788.284	289.125	76.066	11.610	30.779	17.990

*Adierazitako kontzeptu bakoitza benetan jaso duten pertsonen kopurua.

Gorago adierazitako formula aplikatuta, itzulera sozial hau lortu da: dirulaguntzan gastatutako euro bakoitzeko 0,54 euroko batez besteko itzulera soziala lortu zen sei hilabetera.



*Itzulera soziala diruz lagundutako aldia amaitu eta 12 hilabetera*

	Dirulaguntza- ren hileko gas- tua	Lanbide arteko gutxieneko sol- data	Langabeziako prestazioa	Langabezi- ako sorospena	Errenta bermatua	Gizarte asegu- ruak
Pertsonen kop.*	658	312	82	37	45	312
Unitateko batez bes- teko zenbatekoa	1.198	1.125	1.042	430	905	70
Guztira	788.284	351.000	85.444	15.910	40.725	21.840

*Adierazitako kontzeptu bakoitza benetan jaso duten pertsonen kopurua.

Kasu honetan, diruz lagundutako aldia amaitu eta urte batera, gastatutako euro bakoitzeko 0,65 euroko batez besteko itzulera soziala lortu zen.

Labur esanda, toki erakundeei emandako laguntza hauetan ez zen berresku-ratu dirulaguntzetan inbertitutako euroa ez sei hilabetera ez 12 hilabetera, gas-tatutako euro bakoitzeko 0,54 eta 0,65 euro lortu baitziren, hurrenez hurren.

- Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntzak:

NL-NEZek 2018ko deialdia ebaluatu zuen, eta diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera itzulera soziala ekarri zuten 176 kontratazio aztertu zituen. Ondoren adierazten diren emaitzak atera ziren.

Itzulera soziala diruz lagundutako aldia amaitu eta sei hilabetera

	Dirulaguntza- ren hileko gastua	Lanbide arteko gutxieneko sol- data	Langabeziako prestazioa	Langabezi- ako sorospena	Errenta bermatua	Gizarte asegu- ruak
Pertsonen kop.*	176	170	6	2	3	170
Unitateko batez besteko zenbatekoa	750	1.050	960	430	935	65
Guztira	132.000	178.500	5.760	860	2.805	11.050

*Adierazitako kontzeptu bakoitza benetan jaso duten pertsonen kopurua.

Gorago adierazitako formula aplikatuta, itzulera sozial hau lortu da: dirula-guntzan gastatutako euro bakoitzeko, gastatu ez diren prestazio sozialak ken-duta, 1,51 euroko batez besteko itzulera soziala lortu zen sei hilabetera.

Itzulera soziala diruz lagundutako kontratua hasi eta bi urtera

	Dirulaguntza- ren hileko gastua	Lanbide arteko gutxieneko sol- data	Langabeziako prestazioa	Langabeziako sorospena	Errenta bermatua	Gizarte aseguruak
Pertsonen kop.*	176	153	6	2	3	153
Unitateko batez bes- teko zenbatekoa	750	1.050	960	430	935	65
Guztira	132.000	160.650	5.760	860	2.805	9.945

*Adierazitako kontzeptu bakoitza benetan jaso duten pertsonen kopurua.






Kontratua hasi eta bi urtera, batez besteko itzulera soziala 1,36 euro zen, dirulaguntzetan gastatutako euro bakoitzeko.

Labur esanda, praktikaldiko kontratazioa sustatzeko laguntza hauetan berreskuratu egin zen dirulaguntzetan egindako gastu publikoa, eta gastatutako euro bakoitzeko 1,51 eta 1,36 euro lortu ziren aztertutako bi aldietan.

VI.2.2. *Pertsonaren kontratazioa dirulaguntzarik izan gabe*

Toki erakundeei eta enpresei egindako inkestan, galdetu zitzaien ea inor kontratatuko zuketean diruz lagundutako pertsonak betetako lanpostuetarako dirulaguntzarik izan ez balute. Hauek izan ziren kasu bakoitzean lorturiko emaitzak:

- Toki erakundeetan kontratazioa sustatzeko laguntzak:




2021ean, toki erakundeen ehuneko 59k ez zuketean inor kontratatuko aztertutako dirulaguntza izan ez balute; ehuneko 41ek, aldiz, baten bat kontratatuko zukeen. Kopuru horiek ez dute alde nabarmenik 2020ko laguntzekin alderatuta (ehuneko 56 eta 44, hurrenez hurren).





- Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntzak:



Aztertutako aldian, enpresen ehuneko 75ek norbait kontratatuko zuketen dirulaguntzarik izan ez balute ere.

VI.3. Enplegua sustatzeko kontrataziorako laguntzen kudeaketa eta kontrola

3. helburua. Egokiak izan al dira toki erakundeei langabeak kontratatzeko emandako dirulaguntzen eta Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntzaren deialdien kudeaketa eta kontrola?

VI.3.1. Dirulaguntzak ematea

- Toki erakundeetan kontratazioa sustatzeko laguntzak:

Toki erakundeei laguntzak emateko prozedura aztertu dugu, baita 2017-2021 aldian ukatu ziren edo onartu ez ziren 34 eskabideak ere.

Emateen lagin bat aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu orokorrean deialdian ezarritakoarekin bat etorrita eman zirela.

- Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntzak:

Enpresei laguntzak emateko prozedura aztertu dugu, baita 2017- 2021 aldian ukatu ziren edo onartu ez ziren 201 eskabideak ere.

Emateen lagin bat aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu orokorrean deialdian ezarritakoarekin bat etorrita eman zirela. Hala ere, hau zehaztu behar dugu:

a. Deialdian ez zegoen berariaz jasota ezin zela pertsona bera kontratatu enpresa bererako urte berean; toki erakundeentzako deialdian, aldiz, bai. Inguruabar





hori dela eta, egiaztatu dugu 13 pertsona birritan kontratatu ziren enpresa bererako urte berean, eta beste bi pertsona hiru aldiz ere, ondoz ondoko bi urtetan. Hala eginenez gero, ez da bermatzen gastu publikoaren bidezko banaketa. Dirulaguntza hauei lotutako zenbatekoa 69.918 euro izan zen.


b. Kontratua hasi zen egun berean aurkeztutako bi eskabide onetsi ziren. Deialdian ezartzen zuen hurrengo egunean hasi behar zela kontratua. 6.510 euroko laguntza eman zen. Inguruabar berak zortzi eskabide ukatzea eragin zuen, eta, beraz, ez zen irizpide berbera ezarri kasu guztietan.

VI.3.2. Laguntzak eskatzeko erraztasuna

Txosten honetan ebaluatutako laguntzak eskatzeko erraztasuna aztertzeko, toki erakundeei eta enpresei egindako inkestetan sartutako galderari dagozkien irizpideak erabili dira.

- Toki erakundeetan kontratazioa sustatzeko laguntzak:

Toki erakundeen balorazioa dirulaguntza eskuratzeko prozeduraren erraztasunaren inguruan




Toki erakunde gehienek ustez (2021ean, ehuneko 90; 2020an, ehuneko 88), dirulaguntza hau eskuratzeko prozedura erraza zen.

Toki erakundeen balorazioa dirulaguntzarekin lotutako online zerbitzuen inguruan

Toki erakundeek dirulaguntzak eskuratzeko dauden online zerbitzuei buruz egindako balorazioaren emaitzak hurrengo grafikoan jaso dira.






Bai 2021ean bai 2020an, toki erakundeen ehuneko 94k balorazio positiboa egin zuten dirulaguntza eskuratzeko online zerbitzuen inguruan.

Toki erakundeen balorazioa NL-NEZeko langileek dirulaguntza izapidetzeko emandako laguntzaren inguruan



Erakundeen ehuneko 94k balorazio positiboa egin zuten dirulaguntza izapidetzen duten NL-NEZeko langileen laguntzari buruz; ehuneko 91 izan ziren 2020ko deialdian. Hala ikus daiteke grafiko honetan:



- Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntzak: enpresei 2017-2021 aldian egindako inkestetan ez zen beti galdetu irizpide horiei buruz; informazio hori dagoen urteetarako lortutako emaitzak sartu dira kasu bakoitzean.

Enpresen balorazioa dirulaguntza eskuratzeko prozeduraren erraztasunen inguruan






Ikusten denez, dirulaguntza hau eskuratzeko erraztasunari buruzko balorazio positiboak nabarmen gora egin zuen aztertutako aldian, eta 2017an ehuneko 74 izatetik 2021ean ehuneko 93 izatera pasatu zen.

Enpresen balorazioa dirulaguntzarekin lotutako online zerbitzuen inguruan


Dirulaguntza izapidetzeko dauden online zerbitzuei dagokienez, enpresen ehuneko 93k eta 91k balorazio positiboa egin zuten 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren, grafiko honetan ikus daitekeenez:



Enpresen balorazioa NL-NEZeko langileek dirulaguntza kudeatzeko emandako laguntzaren inguruan

Enpresek ere balorazio positiboa egin zuten dirulaguntza hau izapidetzen duten NL-NEZeko langileen laguntzaren inguruan. Balorazio hori egin zuten enpresen ehuneko 92k 2018-2021 aldian (ez dago daturik 2017ko deialdirako), grafiko honek erakusten duenaren arabera:





VI.3.3. Laguntzen jarraipena eta kontrola

Fiskalizatutako laguntzak ematearen inguruan NL-NEZeko langileek egin-dako jarraipena eta kontrola aztertu dugu, eta hauek izan dira emaitzak.

- Toki erakundeetan kontratazioa sustatzeko laguntzak:

NL-NEZek egiaztatu zuen ea diruz lagundutako pertsonak alta-egoeran egon ziren Gizarte Segurantzaren diruz lagundutako aldi osoan. Kontrol horren barruan, akats batzuk hauteman ziren eta 214 itzulketa eragin zituzten, taula honetan ikus daitekeenez:

	2017	2018	2019	2020	2021	Aldea (%) 2021/2017	Aldea (%) 2021/2020
Itzulketen kop.	27	46	41	68	32	19	-53
Guztira itzultitako zenbate-	34.472	64.046	67.464	80.157	49.288	43	-39

Itzulketa horien ehuneko 54 kontratua lehenago amaitzeagatik gertatu zen; ehuneko 40, kontratatuak aldi baterako ezintasuna izan zuelako; ehuneko lau, kontratatuaren ordeztu beste gizatalde bateko pertsona bat hartu zelako, eta gainerakoa, ehuneko bateko edo hortik beherako ehunekoak ekarri zuten arrazoi bakanek eraginda.





Egiaztatu dugu itzulketa guztiak deialdian ezarritako arrazoien ondorioz egin zirela, eta behar bezala izapidetu zirela, baina toki erakunde bati bi kontrataziorengatik egindako bat 2.201 euroko itzulketa partzial gisa izapidetu zen, eta, deialdiaren arabera, 9.600 euroko itzulketa osoa izan behar zen⁴.

- Gazte Bermea taldea praktikaldian kontratatzea sustatzeko laguntzak:

NL-NEZek egiaztatu zuen ea diruz lagundutako pertsonak alta-egoeran egon ziren Gizarte Segurantzaren diruz lagundutako aldian, eta 99 itzulketa izapidetu ziren, jarraian erakusten dugunez:

	2017	2018	2019	2020	2021	Aldea (%) 2021/2017	Aldea (%) 2021/2020
Itzulketen kop.	1	7	20	28	43	4.100	50
Guztira itzultitako zenbatekoa	870	14.230	63.556	80.554	97.425	11.098	21

Gastuaren eta kontratatuen kopuruaren gorako joerarekin bat eginda, itzulketen ehuneko 48 kontratatua ezarritako denboran kontratatuta ez egoteagatik izan ziren; ehuneko 37, kontratatuen bajengatik; ehuneko hamar, kontratatuaren lanaldia aldatzeagatik, eta ehuneko bi, “de minimis” laguntzaren zenbatekoa gainditzeagatik. Gainerako ehuneko laua ehuneko batetik beherako ehunekoak izan zituzten beste arrazoi batzuegatik izan zen.

Egiaztatu dugu itzulketa guztiak deialdian ezarritako arrazoietan oinarrituta zeudela, eta behar bezala izapidetu zirela.

Labur esanda, ondoriozta dezakegu orokorrean bi laguntzak behar bezala eman, kudeatu eta kontrolatu zituztela NL-NEZeko langileek.

Txosten hau Karen Moreno Orduña auditoreak, lan honen arduraduna izan denak, proposatuta eman da, indarrean dagoen araudian aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2022ko irailaren 7an

Lehendakaria, Ignacio Cabeza del Salvador

⁴ NL-NEZek egindako alegazioetan jasotakoaren arabera, hasita dago itzulketa oso horri dagokion espedientea.





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak



ALEGACIONES DEL SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO- NAFAR LANSARE AL INFORME PROVISIONAL EMITIDO POR LA CAMARA DE COMPTOS SOBRE LA EFICACIA Y EFICIENCIA DE LAS AYUDAS A LA CONTRATACIÓN PARA INCENTIVAR EL EMPLEO.

Única. - En la página 36, apartado VI.3.3. se hace referencia a una incidencia relacionada con el procedimiento de reintegro tramitado a una entidad local por el incumplimiento de la obligación de mantener los contratos financiados.

Se trata del expediente 0011-0519-2019-000670 por el que se concedió mediante la Resolución 2562/2019, de 8 de octubre, de la Directora Gerente del Servicio Navarro de Empleo- Nafar Lansare una subvención por importe de 21.000 € al Ayuntamiento de Zizur mayor/ Zizur Nagusia por la contratación de 4 trabajadores.

Con fecha 4 de mayo de 2020, la entidad beneficiaria comunicó que dos trabajadores habían causado baja por despido disciplinario con efectos del 2 de octubre de 2019, sin haber sido sustituidos.

Mediante la Resolución 3901/2020, de 11 de noviembre, de la Directora Gerente del Servicio Navarro de Empleo- Nafar Lansare se ordenó el reintegro parcial de la subvención concedida por la contratación de estas personas por importe de 2.133,34 euros, más 68,38 euros de intereses de demora. Para calcular el importe correspondiente al expediente de reintegro se aplicó lo dispuesto en la base 19 de la Resolución 3351 E/2020, de 1 de octubre, de la Directora Gerente del Servicio Navarro de Empleo- Nafar Lansare que modifica la Resolución 251/2018, de 7 de marzo de la Directora Gerente, y que permitía proceder al reintegro parcial cuando la contratación hubiera superado los tres meses. Esta modificación de las bases de la convocatoria se publicó en el BON el 3 de noviembre de 2020, entrando en vigor al día siguiente de su publicación, por lo que no resulta aplicable a las contrataciones subvencionadas conforme a la regulación anterior. Por ello, con fecha 5 de septiembre de 2022 se ha tramitado el expediente de inicio de reintegro total de las subvenciones concedidas al Ayuntamiento de Zizur mayor/ Zizur Nagusia por la contratación de dos trabajadores.

Pamplona a 5 de septiembre de 2022

LA DIRECTORA GERENTE DEL
SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO- NAFAR LANSARE

Miriam Martón Pérez



Behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak aurkeztutako alegazioetan datu berriak aurkeztu dira eta behin-behineko txostenean jaso dira, 36. orrialdeko oin-oharrean. Txostena behin betiko bihurtu da.

Iruñean, 2022ko irailaren 7an

Lehendakaria, Ignacio Cabeza del Salvador

